Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

1202

AGINDUA, 2009ko urtarrilaren 27koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, «Fundación Biscaytik-Biscaytik Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Bilboko (Bizkaia) Fundación Biscaytik-Biscaytik Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidearen espedientea ikusi da.

AURREKARIAK

1.– Bizkaiko Foru Aldundiak Fundación Biscaytik-Biscaytik Fundazioa eratu zuen, horretarako emandako eskritura publikoaren bidez. Eskritura Bilboko notarioa den Raquel Ruiz Torres andreak eman zuen, 2008ko abenduaren 22an (bere protokoloan 437 zenbakia dauka).

Eskritura publiko honi, jatorrizkoaren ondoren, eginbideak luzatu zaizkio, 2008ko abenduaren 26koa eta 2009ko urtarrilaren 21ekoa.

2.– Fundación Biscaytik-Biscaytik Fundazioaren helburua estatutuen 2. artikuluan dago jasota:

Fundazioaren helburuak hauek dira: herritarrei laguntzeko teknologien eta kudeaketa-jardueren ezagutza bultzatzeko behar diren jarduerak komunikazio-teknologien bidez sustatzea, herritarrak Administraziora on-line gehiago hurbildu daitezen.

Helburu horien barruan, fundazioak garatuko ditu berehala egingo diren ekintza garrantzitsuen hauek, adibide moduan ematen direnak:

(i) Herritarrei zerbitzua emateko zentro teknologiko bat eratzea, zerbitzu horien nazioarteko erreferentzia izango dena.

(ii) Herritarrentzako zerbitzu-plataformarekin zerikusia duten proiektuak bideratzea.

(iii) Prestakuntza-zerbitzuak ematea, bai maila teknologikoan, bai herri-administrazioen kudeaketa-mailan.

(iv) Herri-administrazioarentzako berrikuntza teknologikoaren proiektuak kudeatzen laguntzea.

(v) Fundazioaren egitekoak gauzatzeko lagungarri izan daitekeen beste edozein jarduera.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

1202

ORDEN de 27 de enero de 2009, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada Fundación Biscaytik-Biscaytik Fundazioa.

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada Fundación Biscaytik-Biscaytik Fundazioa, de Bilbao (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por la Diputación Foral de Bizkaia-Bizkaiko Foru Aldundia se ha constituido la Fundación denominada Fundación Biscaytik-Biscaytik Fundazioa, mediante Escritura pública de constitución otorgada el 22 de diciembre de 2008, ante la Notaria de Bilbao, Dña. Raquel Ruiz Torres, número 437 de su protocolo.

A esta Escritura pública se le han extendido diligencias a seguido de la matriz, con fechas de 26 de diciembre de 2008 y 21 de enero de 2009.

2.– El fin fundacional de la denominada Fundación Biscaytik-Biscaytik Fundazioa, viene establecido en el artículo 2 de su norma estatutaria:

La Fundación tiene como fines fundacionales la promoción de cuantas actividades procedan para el impulso del conocimiento en las tecnologías y prácticas de gestión relacionadas con la atención a la ciudadanía a través de las tecnologías de la comunicación, a fin de potenciar el acercamiento on-line de los ciudadanos a la Administración.

Dentro de tales fines, la Fundación desarrollará como actividades concretas más importantes e inmediatas las siguientes (que se señalan a título ejemplificativo):

(i) Creación de un centro tecnológico en servicios a la ciudadanía que constituya una referencia internacional en tales servicios.

(ii) Canalización de proyectos relacionados con la plataforma de servicios a la ciudadanía.

(iii) Prestación de servicios de formación, tanto a nivel tecnológico como de gestión de las Administraciones Públicas.

(iv) Apoyo en la gestión de proyectos de innovación tecnológica para la Administración Pública.

(v) Cualesquiera otras actividades que puedan ser conducentes a la realización de los fines propios de la fundación.

3.– Fundazioaren egoitza, Fundazioaren Estatutuetako 5. artikuluan adierazten denez, hau da: kale Nagusia 25, 48009, Bilbao.

4.– Hasierako dotazioa milioi bat eurokoa (1.000.000,00) da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c) artikuluak.

Ondarea egokitzat eta askitzat jotzen da fundazioaren helburuak lortzeko, Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1 artikuluaren arabera, lege hori aplikatzekoa baita azken xedapenetatik lehenengoaren indarrez.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, Fundazioaren Estatutuetako 22. artikuluan jartzen duen moduan.

6.– Fundazioa eratzeko eskrituran ezarritakoaren arabera, hauek izango dira patronatuko kide:

Bizkaiko Foru Aldundiko diputatu nagusia, José Luis Bilbao Eguren jauna.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza foru diputatua, José María Iruarrizaga Artaraz jauna.

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen foru diputatua, Izaskun Artetxe García andrea.

Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanak eta Herri Administrazio foru diputatua, José María Iruarrizaga Artaraz jauna.

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala dago agindutа Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistro-

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en c/ Gran Vía, 25 – 48009 Bilbao.

4.– La dotación inicial asciende a la cantidad de un millón de euros (1.000.000,00), cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c) del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición final 1.ª.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 22 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional estará integrado por,

Diputado General de Bizkaia, Excelentísimo Señor D. José Luis Bilbao Eguren.

Diputado Foral de Hacienda y Finanzas de Bizkaia, Ilustrísimo Señor D. José María Iruarrizaga Artaraz.

Diputada Foral de Innovación y Promoción Económica de Bizkaia, Ilustrísima Señora Dña. Izaskun Artetxe García.

Diputado Foral de Relaciones Municipales y Administraciones Públicas de Bizkaia, Ilustrísimo Señor D. Juan Francisco, Sierra-Sesumaga Ibarreche.

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 4 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y ss. del Reglamento del Registro de Fundaciones del

aren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua, eta orokorrean aplikatzekoak diren gainerako arauak. Ondorioz,

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaur, F-236 zenbakiaz, Bilboko (Bizkaia) Fundación Biscaytik-Biscaytik Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 1. sekzioan inskribatzea, irakaskuntza eta ikerketari buruzko fundazioen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2. artikuluan agindutakoaz bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 27a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 100/2007, de 19 de junio, el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio, y demás normas de general y pertinente aplicación.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-236, de la constitución de la denominada Fundación Biscaytik-Biscaytik Fundazioa, de Bilbao (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 1.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, relativa a las fundaciones docentes y dedicadas a la investigación, conforme lo dispuesto en el artículo 2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 2009.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.